

## Iruña-Veleia Argitzeko Batzordeak diru bilketa abiatu du datazioak egin ahal izateko

EUSKARAREN JATORRIA elkarteko Iruña-Veleia Argitzeko Batzordeak sei katiluko bilduma prestatu du diru bilketa egiteko asmoz. 3.000 euro jaso nahi dituzte Europako laborategi batek idazkun bat noizkoa den zientifikoki datatu dezan.

Batzordeak adierazi duenez, grafitoak oraindik noizkoak diren baieztatu gabe dago eta haien

asmoa horretarako baimena lortu eta Europako arkeometria laborategi batean adreilu baten datazioa egitea da. Horretarako behar diren 3.000 euroak biltzeko katiluak eros daitezke (bakoitzak 15 euro eta seiak erosiz gero 80 euro) edo kontu korrontean dirua sar daiteke. Informazio gehiago nahi izanez gero: <http://euskararenjatorria.net/?p=2236>



Katiluak 15 euroan salduko dituzte. Batzordearen ustez, ezkerreko idazkunak "Neu Veleia Gorin bizi naiz" esan nahi du eta eskuinekoak "Lurra, sua".

## Bahea

Galder Unzaluk [uriola.info-n](http://uriola.info-n) esanak:

"Errealitatea aldatzen doa, eta esango nuke Bilbon errealitatea aldatzen ari dela kasu honetan ere. Agian desioak eta errealitatea nahasteko arriskuan eror daiteke bat. Agian. Nolanahi, bada errealitate neurgarri eta errepikakor bat: mintzaleku askotan euskara entzuten da behin eta berriz, nortzuren eta gurasoen zain (jabeak zein bezeroak) dauden haur eta umeen eskutik.

Gertatu ahal zaizu ume hegoamerikarrekin, ume afrikarrekin, txinatarrekin zein magrebiarrekin. Batzuetan anai-arreben artean jolasean euskaraz, bestetan gurasoei hitzen bat esaten (adarra jotzen edo jakituria erakusketetan), harako bestean umea euskaraz kantari ari dela, honakoan zuri sakelakotik euskaraz entzun eta korrika zuregana datorrela edozer galdezka".

## EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

### Alprojak eta lapurrak

ESPAINIAKO ESTATUKO HERRITARRAK egunero jasaten ari dira politikari eta enpresariaren ustelkeriaren izeberg punta baino ez den espektakulu lotsagarria. Krisiak jendartearen sektore ahulena erasotzen zuen bitartean, kapitalismoaren austeritate politika ezarri dutenak barrabaskeriak egin eta diru-kutxa publikoak lapurtzen aritu dira. Esanguratsuenak azpimarratzearen —euskararren poltsikoan ere eragina baitauka—, hortxe daude Gurtel kasua, Barcnas, Mata, Fabra, Urdangarin-Borboi, Bankia, Rato eta Blesa, Pujol familia, Granados eta beste 51 delinkuente, EEE auzia eta abar. Urtean 40.000 milioi euro lapurtu dituzte, ogasunari iruzur eginda, paradisu fiskalak erabiliz, txartel opakuen bidez, edota kontratu publikoak "kosk" egiten lortutako komisioekin. Lapurtutako diru publiko horrekin, euren kontu pertsonala loditzeaz gain, luxuan bizi izan dira alproja horiek. Euskal Herrian, zorionez, ustelkeria ez da hain basatia izan. Hala ere, gogoan izan behar ditugu Nafarroan CAN afera eta EAEn Bidegi, Epsilon eta Hiriko kasuak.

Eta bitartean, ustelkeria gehien pilatzen duen PPreko gobernuak 10.000 milioi euro inbertituko ditu armamentu programetan. Abuztuan 883 milioiko kreditua esleitu zuen armak erosteko. Bankuek, krisia gorabehera, dirua irabazten segitzen dute (BBVak 1.929 milioi euro irabazi ditu aurten iraila bitartean). Gobernu horrek berak onartutako aurrekontuetan ordea, menpekotasuna duten 315.000 pertsona alboratuta geratu dira. Caritasek salatu du herritarren laurdenak (ia 12 milioi lagun) bazterketa soziala sufritzen duela, lanik, osasun zerbitzurik eta etxebizitzarik gabe.

Zer jendarte da honakoa? Sistema kapitalistak sortutakoa: lapurreta, ustelkeria eta desberdintasuna sustatzen duena. Jendarte eredu hau errotik aldatzea beste irtenbiderik ez dago. Herritarrek politikari ustelak eta lapurrak etxera edo kartzelara bidali behar dituzte, eta exijitu behar diete itzultzeko lapurtutakoa. Hipotekaturik bizi den gure gazteriak gidatu behar luke aldaketa erradikal hori.

Juan Mari Arregi

